

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 5.936 euro gastatu zuen biztanleko 2014an, aurreko urtean baino % 4 gehiago

3.803,56 milioiko inbertsioa izan zen guztira, eta kopuru horretatik erdia baino gehiago gizarte-arlorako erabili zen

Miércoles, 24 de junio de 2015

Nafarroako Gobernuak 2014ko urteari dagokion Nafarroako Kontu Orokorren Foru Legearen proiektua onartu du gaurko bilkuran; ekitaldi hori 5.936 euroko batez besteko gastuarekin itxi zen biztanleko, 2013an baino % 3,97 gehiago.

Zenbateko horretatik, 1.424,64 euro osasun-beharrak asetzeko erabili ziren, 567 euro hezkuntzako gasturako izan ziren; 439 gizarte-zerbitzuetan eta gizarte-sustapenean inbertitu ziren; eta 318 euro azpiegituretan eta eduki ekonomikoko beste jarduera batzuetan. Zenbaki absolutuetan, foruko diru-kutxek egindako gastua 3.803,56 milioi euro izan zen, guztira.

Diru-sarrerei dagokienez, diru-bilketa garbia 3.695,37 euro izan zen, eta zenbateko horretatik 1.384 milioi zerga zuzenei dagokie, 1.523,74 zeharkakoei, eta 96.6 milioi tasa eta prezio publikoei. Zenbateko txikiagoko beste diru-sarrera batzuk ohiko transferentziei eta kapital-transferentziei dagokie, ondarearen gaineko diru-sarrerei, egiazko inbertsioen besterentzei edo finantza-pasiboei.

Osasunean eta hezkuntzan gastatu da gehien

1.967,51 milioi euro guztira erabili da gizarte-arloan (gastuko aurrekontuaren % 51,73), eta haren barnean sartzen dira: gizartea babestu eta sustatzeko jarduerak, osasuna, hezkuntza, kultura eta etxebizitza.

Zehazki. osasunari 916,24 milioi dagokio, Nafarroako Gobernuko gastu orokorraren % 24, 2013an zegoen antzeko ehunekoa. Hezkuntzan 567,97 milioi euro inbertitu da, 2013an baino 6,68 milioi gehiago.

Gizartea babesteko eta sustatzeko arloan 442,22 milioi euro erabili da (2013an baino % 4,2 gehiago), eta kopuru horren % 52,99 (234,46 milioi) erabili da desgaitasuna duten pertsona, adineko, familia eta haurrentzako jardueretan. Etxebizitza eskuratzeko eta eraikuntza sustatzeko partiden zenbatekoa 58,37 milioi izan da, eta enplegua sustatzekoarena, 48,8 milioi. Gizarteko gastuaren kapitulua kulturaren egindako inbertsioak osatzen du (40,89 milioi euro).

319,29 milioi jarduera ekonomikoari laguntzeko

Arlo ekonomikoko jardueretan 319,29 milioi euro inbertitu da, kopuru

guztiaren % 8,39. Foru Komunitateko jarduera ekonomikoari laguntzeko eta ekoizpen-sarea sendotzeko jarduerak dira, eta haien artean daude, industria, energia, nekazaritza, azpiegiturak, I+G+B eta komunikazioak sustatu, garatu eta bultzatzeko jarduerak. Zehazki, 73,13 milioi erabili da nekazaritza, abeltzaintza eta elikadurarako; industria eta energiaren arloan, 22.95 milioi euro xahutu da, eta I+G+Bn, 46,64 milioi. Merkataritzan eta turismoan 6,81 milioi erabili da, eta 21,30 milioi garraioen diru-laguntzetarako. Azpiegituren partida, berriz, 144,30 milioi izan da.

Administrazioaren gastu orokorretan, 17,32 milioi inbertitu zen jarduera legegilea estaltzeko; haren barnean Parlamentuko, Arartekoaren erakundeko eta Nafarroako Kontseiluko gastuak sartzen dira. Atal horretan, Foru Komunitateko Administrazioak Estatukoari egiten dioen ekarpena ere sartzen da Hitzarmen Ekonomikoaren arabera (555,83 milioikoa izan zen 2014. urtean); toki-administrazioei egindako transferentziak (237,05 milioi); zor publikoaren jaulkipena eta banku-maileguen nahiz beste eragiketa batzuk amortizatzea eta haien interesak ordaintzea (384, 44 milioi, guztira).